

Donostia, 1975-VI-27

EMAKUMEA EUSKAL LITERATURAN

L. Villasante

Andreak eta jaunak, agur!

Hastean, zilegi izan bekit gaur hemen gurekin ez den jaun baten izena aipatzea. *Gabriel Aresti* zenak urtarrileko batzarrean proposatu eta eskatu zuen, Emakumearen Urtea zenaz geroz, Euskaltzaindiak emakume euskaltzalearen ohoretan zerbait egin zezan. Proposamen hura Euskaltzaindiak hainzatzat hartu zuen, eta horren ondorio eta fruitua dugu egungo batzarre ospetsu hau. Zoritzarrez, ez dugu bera gehiago gurekin.

Zirikalari, eragile, olerkari eta bai ikertzaile bezala ere asko zor dio Aresti jaunari euskarak. Azken urteotan euskal alorrean nabaritu diren indar eta egikunde berri askoren sorreran han izango zen, ia beti, agirian edo izkutuan, Arestiren oldarra eta eragina. Bai. Akuilaria genuen Aresti. Eta hori zenez gero, inoiz neurritz kanpoko ateraldi edo egiteak ere izango zituen; baina akuilu baten beharra euskerak eta euskaltzaleok maiz izan ohi dugula, nola uka?

Euskaltzaindiko bat hiltzen denean, ohitura du gure elkargoak hurrengo batzarrean haren aipamena egitea, eta, hain zuzen, hau dugu hura hil ondoko lehen batzarrea. Beste aldetik, esan dudan bezala, bera izan zen asmo hunen ereilea. Horregatik bidezkoa eta beharrezkoa zen Gabriel Arestiren oroitzapena gaur hemen egitea.

—oOo—

Euskaltzaindiak, bada, egin zitzaion proposamen huni men eginez, eta gauza ongi aztertu ondoan, maiatzeko batzarrean ohorezko euskaltzain izendatu zituen hiru emakume, joan mendean jaiotetan euskal baratza lantzen gailurtu direnak. Hoiiei hartako diploma gaur emango zaie.

Beroien izen-deiturak, lanak eta beste xehetasun batzuk, oso gaintetik izango bada ere, esango ditut:

Julene Azpeitia. Zumaian jaioa. Eskola irakasle edo maestra. Mexiko-n bizi zela hasi zen euskeraz idazten. Euskal aldizkari eta agerkari askotan idatzi du. Beste lanen artean, liburu hauk eginak ditu: *Osasuna, merketza ta yanaritza* (Euskaltzaindiak saritutako lana, 1920), *Irakurri, matte* (1932), *Azeri jauna* (1960), *Amandriaren altzoan* (1961), *Umien adizkiaia* (1962), *Zuentzat* etab.

Madeleine Jaureguiberry. Zuberoako Alos-Sibasen jaioa. Eskola irakasle edo maestra hau ere. Euskerari buruz Frantziako egunkarietan asko idatzi du. Euskeraz eskoletarako testuak, diskoak eta irakaskintzan lagun dezaketen lan baliotsuak ditu argitaratuak.

Tene Muxika. Deba-n jaioa. Luzea da andre hunen euskal lanen zerrenda. Huna hemen batzuen izenak: *Miren Itziar-i idazkiak eta olerkiak* (1923an saritua), *Udazken-ala*, inglesera itzulia (1928), *Gogo-oinazeak* eta *Gabon* antzerki-lan sari-tuak (1934), *Joan Joxe*, bakar-hizketa saritua (1936), *Cuadernos de vascuence hablado*. Gainera, ipuinak eta artikuluak erruz argitara izan ditu.

Ikusten duzuenez, hirutatik bi eskola maistra ditugu. Inon euskera gaur presente egotea beharrezko bada, etxean lehenbizi, noski, baina gero eskolan eta irakaskintzan egon beharko du. Alde hortatik ere eredu, ispilu eta bide erakusle ditugu gaur hemen ohoratzen diren andre argi hauk.

Eta esan beharrik ez dago. Andre hauengan, eta hauen-gandik aitzakia hartuz, ohoratu nahi ditu gaur Euskaltzaindiak, ohoratu, goratu eta eskertu, euskeraren alorrean modu batera nahiz bestera, agirian nahiz ixilean, ezagunak direla-rik nahiz ezezagun izanik, lanean ari diren emakume guztiak.

Gure literatura zaharrean euskal idazle bezala ezagutzen diren emakumezkoak ez dira, ez, anitz; baina horrek ez gaitu gehiegi harritu behar. Joan mendeetan emakumeak ez zuen aukera handirik estudioak eta karrerak egiteko. Hor dugu, halere, *Bizenta Mogel*, Azkoitian jaioa. Bere osaba apaizarekin ikasi zuen latina, eta latin hizkuntzatik euskeratutako ipuin-liburua argitara zuen 1804. urtean. Berberak aitortzen du bere herritarrek ez dutela sinestuko neskatxa gazte batek egin duela lan hura. Baina sinestu ez sinestu, hala da egia, esaten digu berak.

Haren hitzaurreko zatitxo bat irakurriko dut:

“Badakit enzunaz beste gabe, neskatx gazte baten izena dagoala itxatsirik liburutxo onen aurrean, jardungo dutela siñuka ez gutxik, diotela beren artean, iñoren lumaz janzi nai duela bela txikiak; au da, besten bearrak artu nai ditudala neretzat: ez dagokiola neskatxa bati bururik ausitzea liburu-giñen: asko duela gorua, naiz jostorratza zuzen erabiltzea. Nola nik siniserazoko diet askori, euskeratu ditudala erdal-dun jakitunak argitaratu dituzten ipuiak? Nolako arrotasuna berriz latiñezko itzkuntzarekin liburu onen asmoa agertzea? Orretarako bear litzake jakitea euskera, gaztelania, eta latiñezko iru izkuntzak. Zein gauza sinisgaitza neskatxa bategan!

Naiz sinistu, naiz ez, esan bear det, gaztetxoa nintzala irakurri ta azaldu oi nituela Fedroren latiñezko ipuiak, artu oi nuela atsegin guziz andia enzunaz txakur, otso, aizeri, ollar, abere, lauoñeko, ta egaztien itzketa alkarren artekoak. Zortzi urte nituenean ekusirik nere neba edo anaia ikasten asi zala gure osabarekin latiñezko izkerea, jarri zitzatan buruan ikasi bear nuela nik ere. Ala, buruari neke gogorrik eman gabe, loari bere orduak emanda, ta zigor zaur garriaren beldurrik ez nuela, jolasez bezela, irten nuen nere asmoarekin, Virgilio-ren itzneurtu ta apainduetan gozaten nintzala. Edozeñek daki Esoporen ipui latiñez ta itz lotu gabeetan daudenak, errazagoak dirala aditzen, Fedro ta Virgilio-ren itz lotuak baño.

Umeago nintzanean berriz enzun oi nituen, zoro zororik, ta pozez erotuta, atso ipuiak. Sinisten nituen egia andi batzuek bezela, *Peru ta Mariaren* ipui farragarri, ta sustrai gabeak: enzunak enzunda ere, aspertu ezin nintzan; ta pakerik ematen ez nien atso gaixoai berriz ta berriz, esateko alako ipuiak. Au da aur guzien gaitza, edo zoratasuna. Orain, bada, ondorik, ta ondorengo onik ez zekarten ipui eroak anbat atsegin ematen bazidaten, nere adinaren argiabarretan sartu baño leenago, zenbat eztituko ez zan nere biotza irakurri nituenean gerora ipui onak? Lenengoan enzuten nituen algaraz ta pozez aizeriaren asmo, gaiztakeria ta asko jakiñak; bere berriketa ta jardunak. Baña azkenean irakurrik ipuiaren aterakizun ta ondoren ederra, ta nenkusanean oskol edo azal zatarra ausirik, barruan zegoan mami gozoa, oroitzen ninzan erle dontsuaz, zeñek lora eder ez diradenetatik ere,

atera oi duen ezitia, ta egin gero erlaunzean abaraska, edo abao aurtxoan ezpañak gozatzen dituztenak'' (1)

Joan den mendearen azken aldera, eta gure hunetan, etengabe gehituz doa emakume euskaltzaleen izendegia. *Rosario Artola, Astibia tar Pantzeske, Maritxu Barriola, Rosa Bustintza, M. Hegiaphal, Mayi Ariztia, M. J. Minaberry, M.^a Dolores Agirre, Elvira Zipitria, Julia Berrojalbiz, K. Elizegi, Begoña Arregi, Karmele Esnal, Mari Karmen Garmendia, M. Maortua, F. Setoain, Miren Jone Azurtza, M. A. Urreta, F. Arregi, M.^a Milagros Bidegain, Arantxa Urretabizkaia, A. Idiazabal, Amaia Lasa, Lurdes Iriondo, Albizuneko Balendiñe, Ibarrola-tar Teri, Aldalur moja bertsolaria Patxika Erramuzpe, eta abar eta abar.* (2)

Badakit izen bat baino gehiago ahaztuko zitzaidala, eta beharbada ez bat, asko baizik; baina nik ezagutu ez ezagutu, gaur denak ohoratuak nahi ditugu eta denentzat bihoa gure agurra.

Beste hainbeste diot ikastoletan murgildurik lanean dabiltzan andereoengatik. Euskeraren alde egiten ari diren lana oso gogoan daukagula esan nahi diet.

Guztientzat izan nahi du agur hunek. Guztientzat da gaur Euskaltzaindiaren esker ona eta txaloa.

—oOo—

Detxepare dugu euskarazko lehen liburuen egilea. Eta gauza jakina da zer-nolako toki abantailatua duen emakumeak haren liburuan.

''Andren gaitz erraile orok behar luke pensatu bera eta bertze oro nontik ginaden sorthu.''

Hala dio lehen euskal idazleak, eta hitz hauek josirik egon behar lukete euskaltzale guztien bihotzetan.

Garibay-ren lekukotasunari esker dakigu, gainera, nola Erdi Aroko azken gizaldietan, hiletetan, *eresiak* kantatzen

(1) BIZENTA MOGEL, *Ipui Onak*; Auspoa liburutegia, 1963; Irakurle Euskaldunari, 37-39 orrialdeak.

(2) Ikus MARI KARMEN GARMENDIA, ''Emakumezkoa gure herriko literaturan'', *Hegatsez* bilduman; 148 orrialdean.

ziren, eta euskerazko eresi hoiien egileak, gehienetan, emakumezkoak izaten zirela. Sancha Ochoa de Ozaeta, Milia Lasturko, Sancha Hortiz eta beste andre batzuen eresiak gorde dizkigu Garibay berberak (1).

Garai hartako ohituretan sartzen zen emakumea olerkari, bertsolari, kantari edo horrelako zerbait izatea. Baina ez kantari soila, zeren eresi hoiien asmatzailea ere bera izaten baitzen.

Behin baino gehiagotan entzun dut, eta zuek ere entzungo zenuten, noski, emakumea erdal zalea izan ohi⁴ dela. Baina joan mendeetako lekukotasunak aztertzen baditugu, beste aldera dira kontuak. Entzun bestela zer dioen Larramendik:

“Las Señoras en este País, aunque sepan decentemente el Castellano, siempre gustan más hablar su Bascuence. Entre a ver a alguna dellas uno destos Romanceados, y propuesta la cortesanía natural de acomodarse al gusto de la Señora entabla un diálogo o conversación heterogénea, correspondiendo en Castellano a la que está hablando en Bascuence. *Ongi etorria dala urlia Jauna*. Y afectando posturas en pies, cuello y ademanes, responde: Señora estoy a los pies de Vm. *Atsegin det berori orrelaxe ikustea: onik dago, eta ederrik, dirudienez beintzat*. Agradezco, Señora, ese favor y, aora estoy bueno, y siempre a la disposición de Vm. *Jarri bedi, ta esan begit, zer dakarren, ain goiztar dabillenean: lo gozorik ez bide deu egin, edo logiro gaistoren bat izan al deu? Correos, Señora, y dependencias son malos arrulladores para conciliar el sueño. Eztet aditzen arrulladores orrek zer esan nai deban, ote dira loeragile iñudeenak? Eso es, Señora. Y así prosigue, sin descuidarse en una palabra Bascongada. Y son demasidamente buenas las que lo sufren, sin decirle *zoaz ordu gaistoan emendikan, eta urrengoan jakin ezazu nere euskera, ta nere erara hitzegin bear didazula, eta ez nik zuri erdera erbesteko arrotz ori*” (2).*

—oOo—

Emakumeak, euskeraren alde lan egiteko, badu toki hau-tatu bat, gaztelu bat, bere-berea duena: etxea. Hau da euske-

(1) Ikus J. CARO BAROJA *Los Vascos y la historia a través de Garibay*, p. 329ss.

(2) LARRAMENDI, *Diccionario Trilingüe*, Prólogo XXVIII.

rak behin ere galdu behar ez lukeen kabia. Hemendik kanpora irten bai, kalera, plazara, eta noranahi, baina beti ere etxea, ahal dela, galdu gabe. Eta hori bai dagoela emakumearen eskuan, beste inorenean baino gehiago! Etxea da lehenbiziko eskola eta beharrezkoena.

Gaur sarri entzuten ditugu solasak emakumearen alienazioaz, liberazioaz eta abar. Beharbada, hortaz esaten direnatan dena ez da egia eta ez gezurra ere. Baina nik ez dut uste, ez gizartean eta ez Elizan, emakumearen bidea gauza denetan gizonaren bide berbera hartzea dela, gizonak egiten dituen gauza berberak egin nahi izatea, alegia.

Eta badira hesparru edo barruti berezi batzuk, zeinetan gizona ez bait zaio sekulan emakumeari nagusituko. Mistikako alorrean, esate baterako, Avilako Teresa, Marie de l'Incarnation, Folignoko Angela edo Angeles Sorazu batek erdietsi eta gero azaldu dizkiguten gailurrak, benetan zirrara barnekorra sor arazteko modukoak dira. Aipatu dudan azkeneko hori Euskal Herriko alaba dugu, gainera, zumaarra, gaur hemen ohoratzen dugun Julene Azpeitia andrearen herri berekoa; berau baino 15 urte lehenago Zumaiian jaioa. Beraz, ez dira aspaldiko kontuak.

Eta bada beste gauza bat maiz ahaztutzen dena. Idazle handiek askotan izan dute aldamenean emakumeren bat, eta haren laguntza gabe, ez ziren beharbada beren lana egiteko gai izango.

Esate baterako lehen aipatu dugun Garibay, iturri paregabea dugu geure Erdi Aroko gertaerak, literatura eta abar jakiteko. Baina nori zor dizkio Garibay-ek berri hoietako asko eta asko? Amari. Halaxe aitortzen digu berak: "de gran memoria en las cosas de sus pasados y de las de su marido, de las cuales muchas de las contenidas en esta relación oí de su boca, algunas dellas de haber visto y otras por tradición de sus mayores" (1).

Eta antzera gertatzen da Don Resurrección M.^a Azkuerekin ere. Don Resurrección-ek bere azken obra handia, *Euskalherriaren Yakintza*, bere amari eskeini zion, eta eskeintza horretan hara zer irakurtzen dugun:

(1) Ikus J. CARO BAROJA, o. cit., p. 81.

“Lankide andiena izan dodan *Mari Karmen Aberasturi ta Uribarri* neure Ama maiteari. Bai lau liburu onen orrialdeetan ta bai Iztegiarenetan bi mila bidar gitxienez, gai bata ta bestearen ondoan, iru izkiratxo onek irakurri dagikez: B-mu. Bizkaia-Mundaka darakuse. Zortzi-amar bat gai ez, beste mila ta bederatzireun ta larogei ta amarrak, ama, berorren ezpanetatik neure belarrietara yatsiak dira” (2).

Garibay eta Azkuek halako ama bat izan ez balute, hartu zuten bidea hartzeko eta burutu zuten lana burutzeko behar-bada ez ziren gai izango. Eta zenbat horrelako edo antzeko, gizon handi-ospetsuen kondairan! Ikuste motx-laburrekoak izango ginake, bada, emakumearen lana eta eragina izen sonatu batzuetarik bakarrik neurtuko bagenu.

Emakumearen lana apartekoa da, berak bakarrik egin lezakeena. Eta berak bere zereginari uko egingo balio, utziko lukeen hutsarte ezin hornituzkoa gertatuko litzateke.

Domingo Agirre, Garoa eta Kresala-ren egileak, badu lantxo bat emakume euskaltzaleari eskeinia. Hain zuzen ere, Bizenta Mogel-en liburuaren bigarren ediziorako egina. Hango hitzekin bukatzen dut neure hitzalditxoa:

“Asi, Euskalerriko alabak; ekin lanean, saiatu euskeraren alde, lagundu guri” (3).

(2) RESURRECCION M.^a DE AZKUE, *Euskalerraren Yakintza*, Lenengo liburua, 5. orrialdean; Madrid, 1935.

(3) DOMINGO AGIRRE, “Emakumea gizaldiko lorea omen da”. Ikus BIZENTA MOGEL, *Ipui Onak*, Auspoa Liburutegia 28, 25-31 orrialdeak.

GAZTEA NINTZANEAN TA MAISTRA EGIÑ-BERRIA NINTZANEKO OROIMEN MAITEGARRI BATZUEK. BETI NERE BIOTZEAN DITUDANAK

Julene Azpeitia

Emeretzi urte nituan, eta Aizarnabal-en nengoan irakasle, Valladolid'en oposizioak egiteko, 21 urte bete artean.

Amabost urtedun nintzalarik, sartu nintzan Gipuzkoa'ko Normal Ikastetxean, Donostian. Ango ikastaroak amaituta